

Larrialdietan

- Haurra : Ai, ai, ai ! Min dut. Noiz etorriko da medikua ?
- Ama (edo aita) : Badakizu, larrialdietan pazientzia behar da. Batzuetan berehala hartzen dute baina gehienetan igurikatu behar da. Gainera gaur, larunbat arratsa izanki, segur sendagileek lana ukanen dutela.
- Haurra : Uste duzu zerbait hautsia dudala ?
- Ama (edo aita) : Gaixoa, ez naiz mediku. Laster jakinen dugu.
- Erizaina : Gau on. Zer gertatzen zaizue ?
- Ama : Bizikletan ibilki zelarik, tontor batengatik erori da eta orain sorbaldan min du.
- Erizaina : Sar zaitetze gela horretan; medikua ahal bezain laster etorriko zaizue. Gaur lanpetuak gara. Ez dakit haize hego honek duenez jendea harrotzen baina jadanik hiru zauritu sartu zaizkigu. To, hara medikua.
- Medikua : Zer du gazte honek ?
- Erizaina : Bizikletatik erori da eta sorbalda minbera du.
- Medikua : Besoa luzatzen ahal duzu ?
- Haurra : Bai, bai, sorbalda ez baldin badut mugitzen.
- Medikua : Uste dut klabikula hautsia duzula. Erradiografia eginen dizugu. Baduzuia beste minik ? Burua kaskatu duzua erortzean ?
- Haurra : Ez, zernahi gisaz kaskoa soinean nuen.
- Medikua : Biba zu. Kaskoa beti soinean ezarri behar duzu buruaren gerizatzeko.
- Ama : Hautsia baldin badu, zer gertatuko da ?
- Medikua : Ikusiko dugu haustura zer heinetan den. Hain segur, zenbait denboraz beso-zurkaitz batekin egonen zara. Gero, operatua izanen zara eta burdinazko plakato batzuk ezarriko dizkizute hezurren ontsa finkatzeko.
- Haurra : Min eginen du ?
- Erizaina : Ez. Operazio denboran lokartua izanen zara. Anestesia orokorra eginen dizute.
- Medikua : Ez baduzu beste galderarik, erradiografia-gelara eramanen zaitu erizainak. Xantza duzu ezkerreko besoa duzula ezindua. Gauza anitz zuhaurek egiten ahalko duzu.
- Ama : Zuk errazu ! Eskolako lanak bederen egiten ahalko ditu !
- Haurra : Bai, baina ez naiz playan aritzen ahalko !
- Erizaina : Goazen orain.

Jokalariak : Haurra, haren ama, erizaina, medikua.
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : 3. ziklotik goiti